

Hobeak izango gara?

Pandemiaren ondoan igaro ditugun ia bi urte hauetan, askotan gogoratu dut sarri samar entzun eta irakurtzen zen esaldi bat: “Pandemiak hobeak egingo gaitu”, eta asko ginen iritzi horrekin bat egiten genuenak.

Une hauetan ezinezkoa da pandemiak biztanleengan izan duen eragina modu horretan baloratzen jarraitzea.

Egiaztatu dugu denoi eragiten digun gai bat ez dela nahikoa izan ados jartzeko eta ekiteko.

Denoi eragiten digu, eta ez gara gai funtzionamendu bateratu batekin jarduteko; “salba dadila ahal duena”, hori izan da pertsonen eta nazioen jarduera ildo. Funtzionamendu insolidario eta egoista baten lekuko izan gara. Herrialdeek txertoak pilatu dituzte beren premien ginetik, farmazialariek pagotxa ederra aurkitu dute eta OME izan da horretaz ohartarazi duen erakundea.

Ez al da NBEri dagokion gaia? Non daude herrialdeak, funtzionamendu global bat erabiltzeko, proposatzeko, inposatzeko?

Nork ahalbidetu du, nork egin du posible pandemian zehar aberatsen eta pobreen arteko arrakala nabarmen areagotzea? Baita gure herrialdean ere!!!

Funtzionamendu horrekin ez gara hobeak aterako, gure miseriak agerian geratu dira; hori axolako zaigu? Hegal azpian ezkutatuko gara?

Maila globalean, arazo asko daude identifikatuta izaera unibertsalarekin tratatu behar liratekeenak, populazio osoari eragiten diotelako, batzuk laguntzen hartzaileak direlako, eta beste batzuk emaileak. Benetan uste dugu maila globalean ordena ezartzeko gai izango garela?

Planeta alerta seinale nabarmenak ematen ari da, gizaterian askotariko ondorioak ekar ditzaketenak: muturreko fenomeno “naturalak” klima aldaketaren ondorioz, emigrazioa, goseteak, eta abar, salba dadila ahal duena aldarrikatzen duen garapen eredu kapitalista porrokatuak eragiten dituen arazo endemiko eta estrukturaleraino gain. Arazo horiei guztiei ezin diegu ekintza eta erantzun puntualekin aurre egin. Plangintza behar da, partekatzea, elkar ulertzea, elkartasuna, akordioak eta horiek errespetatzeko diziplina.

Duela urte batzuk, On Jose Mariak portaera insolidarioari buruz ohartarazi zigun:

ELKARTASUN ESKALA batetik kanpo kokatzen den oro, gutxienez, esplotatzaile izateko hautagaia da, edo beharbada esplotazioaren konplizea.

C34 1963/06

Egungo ordena soziala gainditu nahi badugu eta gizatiarrago eta justuago den beste batekin ordeztu nahi badugu, nahitaezkoa da sozializazio prozesu handiago bat. TU48 1964/08.

Elkartasun kargak daude, azken batean, onartu beharko ditugunak, baita geure intereserako ere. TU49 1964/09

Solidarioak bagara, besteen arazoek ere eragiten digute, eta, ahal dugun heinean, horiek konpontzera behartuta gaude. TU68 1966/04